

7. FUNTZEKO BALIABIDEAK

Dakigunez, funtsezko baliabideak bezeroarekin harremana mantenduz diru sarrerak jasotzeko erabiltzen ditugun baliabideak dira.

Baliabide fisiko bezala, bulego edo lokal bat izango dugu, gure psikologoak aurrez aurreko kontsultak izateko bezeroekin eta bertan kostuak kalkulatzeko eta irteerak eta ekintzak antolatzen. Ere, banaketa sare gisa aplikazioa, noski, erabiliko dugu. Modu honetaz, sistema informatiko (aplikazioa) bati esker bana izango ahal ditugu gure zerbitzuak.

Baliabide intelektual gisa, gure marka izango dugu. Higía&Noûs enpresak sortutako HiNoApp-a izango da gure baliabide intelektualik nagusia, baita logoa ere. Horretaz gain, gure aplikazioaren datu-baseak izango ditugu, gure bezeroen segimenduari eta informazio pribatuarekin.

Giza baliabideak, langile guztion artean enpresaren bertsiorik onena aterako dugu sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala aztertuz. Hala nola, zerbitzu psikologikoak eta laguntza profesionala aditu batzuek datorkigu. Eta, azkenik, noski, psikologo bakarra izango dugu momentuz, baina honek negozio honetan behar diren alderdirik garrantzitsuenak izango ditu, hau da, jakintza, pazientzia, atentzioa eta ulermena. Guk, aplikazioa sortzeko aukerak sormena erabiliko dugu, ahalik eta aplikazio optimoena sortu ahal izateko.

Azkenik, finantza baliabideak dauzkagu. Honetan, bai eskudirua, bai kreditu-linea sartzen dira. Baliabide hauek oso inportanteak dira, gure enpresaren inbertsioak egiteko behar ditugulako, esate baterako, langileen soldatak edo alokairua odaintzeko, negozioa zabaltzeko ala materiala erosteko. Honen kontrol handiago bat izateko eta zerbitzu hobekoak eskaintzeko, diru-laguntza bat eskatu dugu.

Gure enpresaren alde onak atera ditzagun, kostuak ahalik eta gehien murriztu behar ditugu, beti hobetzeko asmoarekin egon behar gara, gizartearen egoera kontutan izanda enpresaren iraunkortasuna neurriko dugu eta aldaketei moldatuko gara eta azkenik, aldaketak egiteko prest egongo gara. Enpresaren hainbat arlotan, kostuak murriztea dugu helburu, adibidez, horregatik aplikazioa geure kabuz diseinatuko dugu. Guzti hau, gazteei zerbitzuak merkeago jartzearen intentzioarekin.

Gure enpresak, beti izango du hobetzeko aukera eta bezeroekiko harremanetan aipatu dugun moduan asbetetze galdetegiak egingo ditugu, gure zerbitzua etengabe aldatzeko haren errendimendu altuena izateko. Bakarrak ez garenez, hoberen egiten dutenak izango gara. Bilakaera konstanteen bila egongo gara, eta denbora pasa ahala, gure zerbitzuak ugartzeaz gain, kalitatea ere hobetuko dugu.